

MIKROSKOPIOA (II)

(Jarraipena)

Intsusa edo mihilu-muina optika-etxeetan saltzen dute. Baita plastiko eta beirazko kaxak ere, eta tutuak gordetzea komeni zaizu, ikasketarako materiala gordetzeko erabiliko bait dugu.

Kasu batzutan substantzia koloratzaileak erabiliko ditugu. Etxeko botikinean aurki dezakezu alkohol iodatua. Maiz erabiliko dugun beste gai bat metileno-urdina izango da; botikategian eros dezakezu. Botikategian saltzen duten metileno-urdina kontzentratua izaten da ordea. Beraz, erabiltzeko orduan urarekin nahastu beharko duzu.

Presta ezazu beti koloratzaile diluitua kantitate txikitan. Deskribatutako materialarekin, sinplea eta elementala, hemendik aurrera proposatuko ditugun lanak egin ditzakezu.

NOLA ANTOLATU PRESTAKUNTZAK

Maiz askotan zera gertatzen da: gazteek mikroskopiaon zerbait ikusi nahi dutenean zuzenki jartzen dute objektua; eta noski, ez dute gauza handirik ikusten; eta, horrela, mikroskopiaarekiko interesa galdu egiten dute. Mikroskopiaz ikusi nahi den objektuak aurrez prestakuntza batzuk behar ditu.

Teknika hauek errazak dira batzuk; besteak, beriz, konplikatuagoak. Denak "prestakuntz teknikak" bezala ezagutzen dira.

Prestakuntza baten ondorioari prestakuntza mikroskopikoa deritzo.

Artikulu hauetan zehar gorputz biziak edo bizidunen zatiak nola ikus daitezkeen erakutsiko dizugu.

Zenbait mineralen obserbazioa ere egingo dugu.

Prestakuntza, "in vivo" denean, (bizirik, manipulatu gabea), bota beharra dago objektua ikusi ondoren, gorputza denborarekin deskonposatu egiten bait da.


Prestakuntza iraunkorrak, berriz, teknika konplikatua lortzen dira. Hauek dira gehienetan erabiltzen ditugunak:

- a) *Fijazioa*: Gorputz biziak substantzia finkatzaileetan murgiltzen dira. Honekin gorputzak hil egiten dira, baina beren bizitzako itxura mantentzen dute eta ez dira deskonposatzen.
- b) *Kolorazioa*: Honekin lortzen duguna zera da, gorputzaren zati batzuk besteak baino gehiago agertaraztea.


Prestakuntza iraunkorrak nahi hainbat alditan erabil ditzakegu.

Prestakuntza freskoetan, toxikoak ez diren koloratzaileak erabiltzen dira, eta honekin gorputzaren zati bizidun batzuk koloratu egiten dira muestra hil gabe.

Koloratzaile hauek diluiturik erabiltzen dira eta animalia txikitan injektatzen dira. Mikroskopikoak direnean, berriz, koloratzaile honetan murgiltzen dira.



1. IRUDIA



2. IRUDIA

NOLA PRESTATU PRESTAKUNTZA MIKROSKOPIKO GEHIENAK


1. Jar ezazu ur-tanta bat ezargailuan. Zenbat eta txikiagoa hobea; botatzeko, berriz, tanta-kontailu bat erabil ezazu, edo disezio-orratzaren punta.

2. Jar ezazu objektua tantan. Erabil ezazu pintza edo disezio-orratzaren punta. Gorputzak txikiak direnean disezio-orratzaren punta guztian itsasteko joera dute. Pintzel txiki bat ere erabil dezakezu objektua prestakuntzan uzteko.

3. Estal ezazu tanta estalkiaz. Kontutan har:

- a) Estalkiaren ertz bat ezargailu gainean jar lehendabizi.
- b) Eutsi estalkiaren kontrako ertza disezio-orratzaz, eta utz ezazu jaisten ezargailua ukitu arte.

Estalkia ongi jarrita badago estalki eta ezargailuaren artean ez da aire-burbuilarik sortuko.




3. IRUDIA

Prestakuntza askotara begira dezakezu zuzenki estalkirik gabe; baina kasu hauetan kontuz ibili behar da, objektiboaren mutturak ez dezala ur-tanta ukitu, handitze handiak erabili behar ditugunean batez ere.

NOLA EMAN GORPUTZEN PROPORZIO ZEHATZA MIKROSKOPIOAREN BIDEZ IRUDIKATZEN DUGUNEAN

- Jar ezazu zuzen mikroskopioa, plataforma horizontalki utziaz.
- Eser zaitez eserleku guri batetan.
- Gorputza oso nabarmen dagoen prestakuntza bat egizu.



4. IRUDIA

- Objektiboa x5 edo x10 erabili eta argitu ezazu, argi on batez irudi ditziratsu bat lor dezazun.
- Mikroskopiaoren eskuin aldean jar ezazu liburu-pila bat, mikroskopiaoren okularetik pilaren gailurreraino 25 cm-ko tarteaz utzirik.
- Jar ezazu orri txuri bat liburu gainean.
- Har ezazu arkatza, eta euskarritu paper gainean.
- Beha ezazu irudia ezkerreko begiaz, eta arkatzaren punta eskuinaz.
- Hurbil ezazu arkatza mikroskopioruntz, arkatzaren punta irudiaren zati batekin elkartu arte.
- Guzti hau kontutan harturik, edozein irudi bere proportzioarekin irudika dezakegu.

XANTI INTXAUSTI

HIZTEGIA

- aire-burbuila = burbuja de aire
- diluitu = diluido
- finkapen = fijación
- finkatzaile = fijador
- irudi = imagen
- injektatu = inyectar
- "in vivo" prestakuntza = preparado en fresco
- koloratzaile = colorante
- kolorazio = coloración
- kontzentratu = concentrado
- pintzel = pincel
- prestakuntza = preparado
- prestakuntza iraunkor = preparado duradero
- prestakuntza mikroskopiko = preparado microscópico
- toxiko = tóxico